



UDAL BATZORDEEN BERRI

| LAN-TALDEA | AZTERGAIAK | GARATUTAKOA | HURRENGORAKO |
|--|---------------------------------|--|--|
| Ekimen sozio-kulturalak (2019/04/23) Hurrengo saioa: 2019/05/21 | Udalekuak | Udalekuen datak erabaki dira. Lau asteetan zehar egingo da eskaintza (ekainaren 24tik uztailaren 19ra), baina eskaera asteka egin ahal izango da. Aste bakoitzeko gutxiengo kopurua 8koa izango da eta eskainiko diren ekintzak honako hauek: sukaldaritza, robotika, keramika, hipika eta multi-kirola. Izan ditzakegun haur-gazteen zerrenda egin da eta familia hauei formulario bidez galdetuko zaie ea parte hartu nahiko luketen eta, ondoren, zeintzuk izan daitezkeen beraien nahiak eta lehentasunak. | -Ekintza bakoitzaren arduradunekin zehaztapenak adostu: → Manurekin: adin-kopuru egokiena zein izan daitekeen eta iraupena ere. → Robotika, Pott, Ibur, Zerki: aurtengo eskaintza - Inkesta prestatu. |
| | Euskara klaseak | Euskara klaseak jasoko lituzketen beste bi itsasoarrek eman dute izena. Gaur egun dugun taldean hasiko lirateke. | Finkatuta dagoen egutegiaz, prezioaz eta diru-laguntzaz informatu. |
| | Formazio saioak: nutrizioa | Maiatzaren 2an Alegin egingo den nutrizioaren inguruko tailerrari buruzko zehaztapenak egin dira: Elkartea erabiltzeko baimena Udaletik bidaliko da eta erabiliko diren ontziak bertatik hartuko dira. | Udaletxeko proiektorea eraman |
| | San Isidro eguna | Urtero antolatzen diren bazkariet gain, herriko produktuak gertuagotik ezagutzeko helburuarekin, Itsasoko ekoizpen propioa duen baserriren batera bisita egitea edo produktu horiek bistaratzea proposatu da. | - Proposamenak aztertzen jarraitu. |
| 2019/05/07 | Parte-hartze prozesua (Siadeco) | Parte-hartzea sustatzeko 8000€-ko diru-laguntza lortu da eta, Siadeco aholkularitza taldearekin burutuko denez prozesua, Juanjo Allur izan da bileran. Prozesu honetako fase desberdinak berrikusi dira, horietako bakoitza zertan zetzan azalduz. Beste datu batzuk ere zehaztu dira: Udal honen ibilbidearen informazioa nondik lortu, herritarrekiko hartu-emana nola egin, baliabideak, epeak,... Parte-hartze prozesuari buruzko fase eta xehetasunak Herri Batzar batean ematea adostu da eta data ere finkatu da: ekainaren 8a. | - Herri Batzarra prestatzeko maiatzaren 28an Siadecorekin bilera egin - Egitasmoaren garrantziaren kontzientzia zabaldu |



| LAN-TALDEA | AZTERGAIAK | GARATUTAKOA | HURRENGORAKO |
|---|--------------------------------------|--|---|
| Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2019/04/30) Hurrengo saioa: 2019/05/14 | Formazio saioak | <ul style="list-style-type: none">- <u>Nutrizioa</u> (maiatzak 2): Dagoeneko 22 pertsonen eman dute izena. Herritarrei berriro gonbita whatsapp bidez luzatzea proposatzen da, oraindik aukera badagoela gogorarazteko.- <u>Energia ARGITUZ</u> (maiatzak 13): Herrian jarriko den kartela diseinatu eta jakinarazpenean joango den testua adostu da. Datorren asteartean bidaliko da.- <u>Euskara klaseak</u>: Interesa azaldu duten bi herritarrekin egon ondoren, eta aurten osatu den taldean hasteko zailtasunak dituztenez (goizez ezin dute), irailtik aurrera berriro irekiko den eskaintzaz baliatu daitezkeela adieraziko zaie.- <u>Batukada</u>: Instrumentuen eskaera bideratu da Legazpiko udalera eta erantzunaren zain gaude. | |
| | Udalekuak | Udalekuak 2019 proposamenaren inguruan etxeetara bidali beharreko inkesta prestatu da. Bideo-jokoak eta Pott keramika eta pintura tailerrak nahiko finkatuta geratu dira. | Sukaldaritza, Hipika eta Multi-kirolaren eskaintzak zehaztu |
| | Diru-laguntza: Parte-hartze prozesua | Otsailaren 22an aurkeztutako diru-laguntzaren ebazpena apirilaren 30ean atera da. 8000€ egokitu dira etorkizuneko Itsaso nolakoa izatea nahi dugun irudikatzeko. Siadecoren aholkularitzarekin maiatzean bertan hasiko gara bilerak antolatzen. Ondorengoak dira aurreikusitako fase nagusiak eta lan kronograma: <ol style="list-style-type: none">1. Fasea: Partaidetza prozesurako prozedura metodologikoa eta bitartekoak zehaztea: 2019ko martxoa (dagoeneko egina)2. Fasea: Diagnostikoa, modu partekatu batean, udalerraren gaur egungo egoera zein den, zein baliabide dituen, eta herri bezala, zein aukera eta mehatxu dituen aztertzea: 2019ko apirila eta maiatza.3. Fasea: Plangintza Estrategikoa, Itsasoren 2030 urtera arteko erronkak eta helburuak zehaztea: 2019ko ekaina eta uztaila.4. Fasea: Lehentasunen Lan Plangintza zehaztea, ITSASO 2020-2030 ibilbide orria adostea: 2019ko iraila eta urria.5. Fasea: Partaidetza proiektuaren amaierako ebaluazioa egitea: 2019ko azaroa. | Siadecorekin bilera antolatuta |
| | Herriko produktuen | Itsasoko produktuak agerian jarri eta bertako ekoizpena eta kontsumoa ahalbideratzeko hainbat fase proposatu dira: dauzkagun produktuak detektatu, katalogoa sortu, eskaintza | Lanketarekin jarraitu |



| | | | |
|--|-----------|--|--|
| | eskaintza | zabaldtu, mahai kolektiboak herriko plazan jarri, ekoizpen lekuetara bisitak egin, dietetika eta sukaldaritza ikastaroak antolatu, herriko produktuen loteak eskaini, ekoizpen aukera berriak aztertu, lanpostua berriak sortu, eraldaketa-guneak aurreikusi,... Lehenik eta behin, Itsason dauden produktuak identifikatzeko, formulario bat prestatzen hastea adosten da. | |
|--|-----------|--|--|

| LAN-TALDEA | AZTERGAIK | GARATUTAKOAK | HURRENGORAKO |
|---|--|---|--|
| Azpiegitura eta ingurumena Hurrengo saioa: 2018/05/15) | Bideetako obren proiektuak | Altzigarragako eta S Lorentzok eskoilera, Iturritako bide zatia eta Itzeko bidean altxatutakoa konpontzeko aurrekontuen eskaera luzatu zaie enpresei. | Maiatzaren 17an, 12.30etan irekiko dira aurrekontuen sobreak eta obrak esleitu |
| | Zaborren kudeaketa | Errefuxa edukinontziak itxi berritan agertu dira zabor poltsa batzuk kanpokaldean, baina geroztik dexente hobetu da egoera. Sasieta-koak ikuskapen baten ondoren zorientzeko deitu dute Udalera, txukuntasuna eta auzo-konpostaren martxagatik. | Jarraipen zuzena egiten jarraitu |
| | Kizkitza-Mandubia-Itsaso ibilbide zirkularra | Guztia markatzeko falta den seinalitika, poste eta markatzeko beharrak identifikatu eta kontabilizatu dira | Pott Keramikari jakinarazi |
| | Alegiako autobus geltokia | Gabiriako udalarekin eginiko hitzarmenak jasotzen duen bezala, Gabiriako udala arduratuko da Aroztegi parean geltokia jartzeko tramite guztiez. Prozesua martxan dela adierazi zaigu. | |